

Newsletter

Abendua 2012





Sharing European Memories at School proiektua hurrengo abenduaren 31an bukatzen da, parte hartu duten sei erakundeek elkarlan guztiz aberasgarriaren ostean. Esperientzia pilotu ezberdinetan parte hartu duten ikasleengandik eta irakasleengandik jasotako balorazio positiboek eta hezkuntza munduko eragileek erakutsitako interesak, proiektuak etorkizunean ere potentzialitatea eduki dezakeela sinestarazten digute. Hau da, proiektuan landutako sekuentzia didaktikoa Derrigorrezko **Bigarren Hezkuntzako Historia eta Gizarte Zientzien arloetan** baliabide gisa erabilgarria izan daitekeela.

Gure lana Europako irakasleentzat erabilgarria eta inspiragarria izatea espero dugu. Baita memoriaren kontzeptua ikasgeletan landua izatea ere. Aldi berean, espero dugu proiektua hau memoriaren lanketa eskola curriculumaren parte izateko bidean, helburu honen egokitasunaz ohartarazteko pauso bat izatea. Izan ere, uste baitugu memoriaren lanketak balio erantsi bat eskaintzen diela Historiako eta Gizarte Zientzietako ikasgaiei. Memoriaren lanketak ikasleak trebatzen ditu gertakarien eta iritzien artean desberdintzeko eta baita gertakari historikoen kausalitate aniztasuna ulertzen ere. Ahozko iturrien bidez memoria historikoa analizatzean, historia ikaslearen hurbileneko testuingurura hurbiltzen da. Gisa honetara, ikasleak eraikitako ezagutzari aplikazio erabat praktikoa ematen zaio.

Proiektuaren azken produktu guztiak eskuragai daude jada proiektuaren web orrian (<http://www.memoriesatschool.eu/lang/en/project-outputs>). Era berean, historiaren eta gizarte zientzien ikaste irakaste prozesuen berrikuntzan diharduten eragile guztien ekarpenak jasotzeko prest gaude.

Sharing European Memories at School: memoria historikoaren lanketa ikasgelan. Sekuentzia didaktikoa eta inplementaziorako gida konpetentzietan oinarritzen den sekuentzia didaktiko inter-kurrikularra da. Historiako edo Gizarte Zientzien klaseak modu berritzaile eta malguago batean antolatzeke aukera ematen duena eta 5 atazetan banatzen dena:

1. ataza

Memoria eta historia kontzeptuen eta haien arteko desberdintasunen analisia.

2. ataza

Aztertutako gertakari historikoak bizi izan zituzten gizabanakoak elkarriketatzea.

3. ataza

Aurrez egindako elkarriketak analizatzea, testuinguru historikoa, gertakarien kausak eta orainaldiko ondorioak eta gertakariak eta iritzia erlazioan jarritz.


4. ataza

Pentsamendu kritikotik abiatuta, aztertutako memoriak eta informazio historikoa erlazionatzen dituen sormenezko lan bat burutzea.

5. ataza

Beste ikastetxe batzuetan landu diren esperientziak ezagutzea eta ikastetxe hauekin sormenezko lanak, jasotako materialak eta esperientzia pertsonalak partekatzea.

Sekuentzia didaktikoak Historiako eta Gizarte Zientzien klaseetan, edota bestelako jarduera hezitzaileetan (adibidez museoetan) aurrera eramateko eta egokitzeko gomendioak ere baditu. Sekuentzia honek modu ezberdinetan antolatzeko malgutasun nahikoa du.



Europako Memorien Datu-Baseak bi helburu ditu. Alde batetik, sekuentzia didaktikoa erabili duten beste eskoletako esperientziak eta materialak biltzea; memoriak partekatzeko atazan erabiltzeko. Eta bestetik, sekuentzia didaktikoarekin beste eskoletan egindako lanari buruzko informazioa helaraztea irakasleei; hauek beste esperientzietatik ekarpenak jaso ditzaten.



Donostiako azken mintegia

Proiektu honi amaiera emateko mintegia, azaroaren 16an, Donostiako Ikastolen Etxean antolatu zen. Mintegi honen xedea proiektuaren esperientziaren eta emaitzen berri ematea zen; baita memoria historikoak Historiaren eta Gizarte Zientzien ikaskuntzetan izan dezaken ekarpenaz eztabaidatzea ere.

Ekitaldi hau **Ikastolen Elkartearen** eta **Aranzadi Zientzia Elkartearen** artean antolatu zen. Gizarte Zientzietan lan egiten duten ikasletoetako irakasleei proiektuaren ondorioen berri jakiteko aukera eman zitzaion. Dena den, beste hezkuntza arloetako, museoetako eta ahozko historia elkarteetako kideak ere bertaratu ziren.

Mintegi honetan ondorioztatu zen, ahozko historiaren bidez memoria historikoa lantzeak ondoko puntuak garatzea dakarrela:

- Konpetentzia sozialak eta herritartasuna garatzea
- Ikasleen pentsamendu historikoa garatzea
- Belaunaldi ezberdinetako kideen artean enpatia eta komunikazioa berrosatzea
- Ikaslearen identitate indibiduala eta kolektiboa garatzea.

Mintegiko aurkezpenak eta ondorioen bertsio osatua ondoko helbidean jaso daitezke:
<http://www.memoriesatschool.eu/lang/es/resources/>



Newsletter

Abendua 2012



www.memoriesatschool.eu



Education and Culture DG
Lifelong Learning Programme



EACEA
Education, Audiovisual & Culture
Executive Agency

This project has been funded with support from the European Commission. This publication reflects the views only of the author, and the Commission cannot be held responsible for any use which may be made of the information contained therein.

Project Number

510410-LLP-1-2010-1-ES-COMENIUS-CMP